

FLUIDOEN INSTALAZIOAK ETA MAKINAK: LABORATEGIKO PRAKTIKEN GIDOIA

AUTOEBALUAZIOA

8. GAIA: HAIZAGAILUAK: Haizagailu erradiala edo zentrifugoa

Ingeniaritza Nuklearra eta Fluidoek Mekanika Saila

1. Haizagailu erradial edo zentrifugo batek ematen dituen presioan eta potentzian eragin handia du:
 - a. Bultzatua den aireak edo gasak aurkezten duen dentsitate aldaketak.
 - b. Bultzatua den aireak edo gasak aurkezten duen abiadura aldaketak.
 - c. Bultzatua den aireak edo gasak aurkezten duen tenperatura aldaketak.
 - d. Bultzatua den aireak edo gasak aurkezten duen konposizio aldaketak.

2. Haizagailu erradial baten diseinuan kontutan hartu behar dugu:
 - a. Zehazki erodetearen sarreran aireak aurkezten presioaren balioa, kabitazioak eragindako arazoak ekiditeko.
 - b. Bai haizagailuaren kokapenak aspirazio hodiarekiko aurkezten duen kota bai kanpoko eremutik xurgatua den aireak aurkezten duen presioaren balioa, kabitazioak eragindako arazoak ekiditeko,.
 - c. Bai haizagailuaren kokapenak aspirazio hodiarekiko aurkezten duen kota bai kanpoko eremutik xurgatua den aireak aurkezten dituen presioaren eta tenperaturaren balioak, kabitazioak eragindako arazoak ekiditeko.
 - d. Kanpoko eremutik xurgatua den aireak aurkezten duen presioaren balioa.

3. Haizagailu erradial baten aspirazio hodian zehar presio totalaren balioak:
 - a. Balio negatiboa aurkezten du.
 - b. Balioa positiboa aurkezten du presio totala ezin delako negatiboa izan.
 - c. 0 balioa aurkezten du haizagailutik airea mugitzen delako eta hortaz, hodian hodian gertatzen diren karga galerak mesprezagarriak direlako.
 - d. 0 balioa dauka hodi honetan zehar aireak aurkezten duen abiadura altua delako.

4. Haizagailu erradial baten hodi xurgatzailean zehar presio estatikoaren balioan:
 - a. Ez dago aldaketarik, baita ere xurgatua den eremuan aurkezten duen balioarekin konparatuta, airea delako mugitzen den fluidoa eta honetan karga galerak mesprezagarriak direlako.
 - b. Igoera gertatzen da, behintzat xurgatua den eremutik aurkezten duen balioarekin konparatuta.
 - c. Jaitsiera gertatzen da, behintzat xurgatua den eremutik aurkezten duen balioarekin konparatuta.
 - d. Ez dago aldaketarik, baita ere xurgatua den eremuan aurkezten duen balioarekin konparatuta, hodi honetan zehar aireak aurkezten duen abiadura altua delako.

5. Haizagailu erradial baten hodi xurgatzailean zehar presio dinamikoaren balioan:
 - a. Jaitsiera gertatzen da, behintzat xurgatua den eremutik aurkezten duen balioarekin konparatuta.
 - b. Igoera gertatzen da, behintzat xurgatua den eremutik aurkezten duen balioarekin konparatuta.
 - c. Ez dago aldaketarik, baita ere xurgatua den eremuan aurkezten duen balioarekin konparatuta, airea delako mugitzen den fluidoa eta honetan karga galerak mesprezagarriak direlako.
 - d. Presio dinamikoak aurkezten duen balioak bat egiten du hodi berdinean presio totalak duen balioarekin.

6. Praktika egiterakoan ikusi denez, biraketa-abiadura konstante mantenduz:
 - a. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio estatikoaren balioak pixkanaka egiten du gora.
 - b. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio estatikoaren balioak pixkanaka egiten du behera.
 - c. Hodi xurgatzailearen presio estatikoaren balioa konstante mantentzen da bakarrik delako biraketa-abiaduraren araberakoa.
 - d. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio estatikoaren balioak esponentzialki egiten du gora.

7. Praktika egiterakoan ikusten denez, biraketa-abiadura konkretu batetarako:
 - a. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio dinamikoaren balioak gora egiten du.
 - b. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio dinamikoaren balioak pixkana egiten du behera.
 - c. Hodi xurgatzailearen presio dinamikoaren balioa konstante mantentzen da bakarrik delako biraketa-abiaduraren araberakoa.
 - d. Bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean, hodi xurgatzailearen presio estatikoaren balioak esponentzialki egiten du gora.

8. Praktika egiterakoan ikusten denez, biraketa-abiadura konkretu batetarako:
 - a. Errodeteak fluidoari eskaintzen dion presioa jaisten da bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean.
 - b. Errodeteak fluidoari eskaintzen dion presioa handitzen da bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean.

- c. Errodeteak fluidoari eskaintzen dion presioa konstante mantentzen da hau bakarrik aldatzen delako biraketa-abiadurarekin.
- d. Errodeteak fluidoari eskaintzen dion presioa esponentzialki handitzen da bultzatua den emariaren balioa handitzen den heinean.